

GAI ZERRENDA:

✓ Debako Garapen Jasangarrirako Ekintza Plana (2013-2016). Herritarrek parte-hartzeko III. Foroa.

<u>DEIALDIA</u>	<u>DEITUTAKO KIDEAK</u>	BAI	EZ
<u>DATA:</u> 31/03/2014	1. Juan Mari Izaga	X	
<u>HASIERA:</u> 18:30	2. Nerea Arrizabalaga	X	
<u>AMAIERA:</u> 20:15	3. Mila Idiakez	X	
<u>TOKIA:</u> Debako Udaletxea. (Batzar Aretoa)	4. Xabier Osa	X	
	5. Alex Turrillas	X	
	6. Mixel Aranberri	X	
	7. M ^a Fran Agirregabiria	X	
	8. Juan Ignacio Aizpurua	X	
	9. Jose Luis Aranberri	X	
	10. Carmelo Urdangarin	X	

LANDUTAKO GAIEN LABURPENA:

Hirugarren eta azken hiri-partaidetza bilerari hasiera emateko, Mainer Zubikaraik, Debako alkatesak, agurra eta sarrera bat egin du. Ondoren, Debegesako Cristina iturriagagoitiak eta Aitziber Cortazarrek Ekintza planaren berrikuste orokor bat egin dute, lan prozesua zein izan den azalduz, erabili den metodologia eta jarraitu den egutegia zein izan den adieraziz.

Jarraian, aurkezpenaren (aurkezpena atxikitua dator dokumentuarekin) lehen diapositiban adierazitako taula bat erabiliz, Ekintza Planeko beharrei erantzuteko erabilitako iturrien zerrenda bat adierazi da eta Plana garatzeko jarraitu diren pausuen zerrenda bat egin da.

Hurrengo diapositiban, Ekintza Planaren azken formatoaren orri bat erakutsi da. Honen bitartez, ekintza bakoitzak dituen adierazpen guztien azalpen bat egin da, Ekintza plana hartuko duen edonork uler dezan.

Hurrengo pausua ekintza estrategiko guztien azalpen bat egitea da. Lerro estrategiko ezberdinetan banatu eta ekintza bakoitza aipatzen da. Jarraian parte-hartzearen inguruko diapositiba erakutsi da eta espezifikoki Ekintza Planean proposatzen diren partaidetzako mahaien azalpena eman da.

Bukatzeko, bertara hurbildu diren herritarrei aurkeztutako Ekintza Planaren inguruko hiru galdera egin eta orri batean banatu zaie, bertatik herritarren ekarpenak jasotzeko.

- (1. Ados zaudete identifikatu diren ekintza estrategikoekin?
- (2. Aurkeztutako planean, ba la dago faltan botatzen duzun ezer?
- (3. Nola aurreikusten duzu, hemendik aurrerako zuekin lanketa? (maiztasuna, helburuak, nortzuk...))

Ekarpen hauek momentukoak edo etxean astebeteko epean idaztekoak izan daitezke. Momentuan aipatutako iritzi eta ekarpenak honako hauek dira:

Iritziak eta Ekarpenak:

- Nekazaritza bultzadaren ekintza, estrategiko bezela definitu.
- Trenaren igarobide arriskutsua da (Txomin tabernaren parean kokatzen dena). Hori dela eta segurtasunari lehentasuna eman behar zaio.
- Komenigarria litzateke Eusko Trenbideak Enpresak dituen planak ezagutzea eta hauen jarraipena egitea.
- Kardenas pasealekua, hondartzako pasealekukoaren maila (nibel) berdinean jartzea, itsasoa ikusteko.
- Jatetxe eta Hotelen azpiegiturak egon arren , zerbitzu on bat eman behar da, gaur egun ez dena ematen.
- Hiri kalitatearen garrantzia eta alderdi estetikoak azpimarratzen dira. Alde zaharrea kableatua, estolderia, terrazak, etb. zaindu.
- Hondartzaren lehen lerroko itxura txarraren iritzia konfirmatzen da eta hau hobetzeak duen garrantzia. Kresala hotelaren eta Casinoaren kanpo itxura hobetzeko behararen arreta deitzen da. Kasino eraikinaren bokazioa mantentzeko hotel eta jatetxearen erabileraren erosotasunaren inguruko iritziak. Baita Casinoaren babes maila gutxitzeko erosotasunaren iritziak ere.

Bukaera emateko, Alkateak, Apirileko Udal Plenoan Debako Garapen Jasangarrirako Ekintza Plan onartzeko proposamena egingo dela informatu du. Eta honekin, amaitutzat eman da bilera.

Honek onartua: